

2013ko UZTAILAREN 23ko UDALBATZARRA
PLENO DE 23 DE JULIO DE 2013

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDESA: M^a SOL MARGARITA TABERNA IRATZOKI

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES Y CONCEJALAS:

FERNANDO BERASAIN GAINZA, NEKANE PEREZ IRAZABAL, GARAZI TABERNA TELLECHEA, JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI, ANDREA GOURAUD ALZUGARAY, UGAITZ ADO PRIETO, SANTIAGO ALZUGUREN MACHICOTE, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, JUAN LOSA OCARIZ.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

KONTUHARTZAILEA / INTERVENTORA: M^o DOLORES OYARZABAL ZUBIETA. (2. puntua bukatu arte/ hasta finalizar el 2º punto).

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

JON ABRIL OLAETXEA (oporrak / vacaciones)

Tokia: BERAko Herriko Etxea

Eguna: 2013-07-23

Ordua: 19:30

Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA

Día: 23-07-2013

Hora: 19:30

Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria.

TRATATZEKO GAIK:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- AZKENEKO AKTAK ONARTZEA.-

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

2013.eko ekainaren 18an eta uztailaren 2an egindako bileren aktak ikusirik, aho batez, ONARTU DITUZTE.

Vistas las actas de las sesiones celebradas los días 18 de junio y 2 de julio de 2013, por unanimidad SE APRUEBAN.

2.- 2012.eko KONTUAK ONESTEA.-

2.- APROBACIÓN CUENTAS 2012.-

Kontuhartzaileak espedientearen txostenaren laburpena azaldu du eta, horren ondoren, aho batez, honako erabakia hartu dute:

La Interventora explica resumidamente el informe del expediente y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Ikusirik, 2012. ekitaldiko Aurrekontuaren likidapenari dagokion Kontu-espeditentea.

Visto el expediente de las Cuentas correspondientes a la liquidación del Presupuesto del ejercicio de 2012.

Ikusirik, Udaleko Kontu Batzorde Bereziak onartzearen alde emandako txostena.

Visto informe favorable a su aprobación emitido por la Comisión Especial de Cuentas de la Corporación.

Izanik, aipatu espeditentea jendaurrean 15 eguneko epea egon dela eta erreklamazioz inork ez duela aurkeztu.

Siendo que dicho expediente ha estado a exposición pública durante el plazo de 15 días, sin que se haya presentado reclamación alguna.

ERABAKI DUTE:

SE ACUERDA:

1) 2012.eko Aurrekontu Arruntaren likidapenari dagokion Kontuak onartzea: Udalarenak, eta Musika Eskolarenak.

1) Aprobar las Cuentas correspondientes a la liquidación del Presupuesto del 201: Ayuntamiento y Escuela de Música.

2) Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 242. artikuluek xedatutakoari jarraikiz, bere ezaguera eta ondorioetarako Nafarroako Gobernuako Toki Administrazio Departamentuari aipatutako Kontu espeditentearen kopia bidaltzea 15 egunetako epean.

2) En cumplimiento de lo establecido en el artículo 242 de la Ley Foral 2/1995 de Haciendas Locales, remitir en el plazo de 15 días una copia de dichas Cuentas al Departamento de Administración Local del Gobierno de Navarra para su conocimiento y efectos.

3.- GERO LUR TRUKEA EGITEKO, BIDE PUBLIKOAREN TARTEA (11. POLIGONOA, 53. eta 252. LUR-ZATIAK) DESAFEKTATZEKO ESPEDIENTEA BEHIN BETIKOZ ONESTEA.

3.- DESAFECTACIÓN TRAMO DE CAMINO PÚBLICO (POLÍGONO 11, PARCELAS 53 y 252) PARA POSTERIOR PERMUTA DE TERRENO, APROBACIÓN DEFINITIVA.

Idazkariak gaia azaldu eta, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, honako erabakia hartu dute:

La Secretaria explica el asunto y, por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, adoptan el siguiente acuerdo:

 ----ren izenean eskatua, Egurri baserriaren parean zihonan bidearen trazadura aldatzea onartu du Udalak.

A solicitud de -----
 ----- el Ayuntamiento ha aceptado la modificación del trazado del camino que discurría al frente del caserío Egurri.

Aldaketa horrekin bide publikoaren trazadura hobetu egin da, bere erabilera erraztu eta ez dio kalterik egiten.

Con esa modificación se mejora el trazado del camino público facilitando su uso y sin perjuicio del mismo.

Trazadura berriak JOSE M^a AGUIRRE ARRIBILLAGAren lur-zatiari (11. poligonoa, 252. lur-zatia) 170,99 metro karratu okupatu dio.

El nuevo trazado ocupa 170,99 metros cuadrados en la parcela de JOSÉ M^a AGUIRRE ARRIBILLAGA (polígono 11, parcela 252).

Kontuan hartuz, bide horren trazadura zaharra orain erabilera publikorik gabe gelditu dela, beraz interesatuarekin adostu zen bezala, okupatutako metro karratuen orde z erabili gabe gelditu diren metro karratuak, 170,99 ere, trukatu zirela.

Teniendo en cuenta que el trazado antiguo del citado camino queda ahora sin utilidad pública por lo que, de acuerdo con lo que se convino con los interesados, los metros cuadrados ocupados serían objeto de permuta con los 170,99 metros cuadrados de camino público que quedan sin utilidad pública.

Kontuan hartuz lur trukaketa egin baino lehen bide publiko hori desafektatu behar dela.

Teniendo en cuenta que, previo a realizar la permuta, debe hacerse la desafectación del camino público.

Kontuan hartuz, zonalde horretan bide publikoa izaten jarraituko duela.

Teniendo en cuenta, que en esa zona continuará existiendo camino público.

Kontuan hartuz, desafektatu behar den bide publikoko zatiaren kalifikazio juridikoaren aldaketa espedientearen justifikatzen dela eta udal onerako bidezkoa dela.

Teniendo en cuenta que en el expediente se justifica el cambio de calificación jurídica del tramo de camino público a desafectar y que resulta de interés municipal.

Kontuan hartuz, jendaurreko epean inork ez duela alegaziorik aurkeztu.

Teniendo en cuenta que durante el plazo de exposición pública no se ha presentado ninguna alegación.

Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 103. artikuluari eta Toki Entitateen Ogasunei buruzko Erregelamenduaren 12.1 artikuluari jarraikiz.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 103 de la Ley Foral de Administración Local y el artículo 12.1 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales de Navarra.

Gehiengo osoz, ERABAKI DUTE:

Por mayoría absoluta, SE ACUERDA:

1) Egurri baserriko parean zihoan bide publikoaren trazadura zaharra, 11. poligonoko 53. eta 252. lur-zatien artean zihoana, desafektatzeko espedientearen, behin betikoz onestea.

1) Aprobar definitivamente la desafectación del tramo de camino público situado entre las parcelas 53 y 252 del polígono 11 que discurría frente al caserío Egurri.

2) Bide publikoaren zati hori Udal ondare-

2) Indicar que este tramo de camino público

ondasun bihurtu dela adieraztea.

queda calificado como bien patrimonial municipal.

3) Erabaki hau interesatuari jakinaraztea.

3) Notificar este acuerdo a la interesada.

4.- LEGIA KARRIKAKO 8.EAN USTEZKO EREMU PUBLIKOA KATASTROAK ALDATZEKO ESKAERA: L. ARRAIZA

4.- SOLICITUD MODIFICACIÓN CATASTRAL ESPACIO PÚBLICO EN LEGIA KARRIKA 8: L. ARRAIZA.

Idazkariak espedientean dagoen dokumentazioaren berri eman du, nahiz interesatuak aurkeztua nahiz katastroko teknikariak eta udal langileek udal artxiboan lortutakoa baina honetan dauden datuak eta Jabetza Erregistrotik eman dituztenak bat ez datozenez eta gaia oso konplexua denez erabaki gabe utzi dute gehiago aztertu eta dokumentazio gehiago lortzeko asmoz..

La Secretaria informa sobre la documentación obrante en el expediente, tanto la presentada por el interesado como la obtenida en el archivo municipal por el técnico de catastro y personal del Ayuntamiento pero como ésta no coincide con los datos recibidos del Registro de la Propiedad y es un tema sumamente complejo se deja pendiente el asunto para analizar más la documentación existente y recabar mayor documentación.

5.- ZENBAIT ERAIKI PUBLIKOETAN BIOMASA GALDARAK JARTZEKO HITZARMENA: BERAKO UDALA ETA NAFARROAKO GOBERNUAREN HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA.

5.- CONVENIO PARA LA INSTALACIÓN DE CALDERAS DE BIOMASA EN DIVERSOS EDIFICIOS PÚBLICOS: AYUNTAMIENTO DE BERA Y DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DEL GOBIERNO DE NAVARRA.

Alkateak azaldu du gaia eta, aho batez, honako erabakia hartu dute:

La Alcaldesa explica el asunto y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Ikusirik, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuarekin Berako Udalak sinatu behar duen hitzarmena, Berako zenbait eraiki publikoetan gasolioko lau galdera eta gaseko baten ordez bi biomasakoak jartzeko proiektua gauzatzeko inbertsioa egin ahal izateko.

Visto convenio con motivo de la inversión a realizar para la sustitución de cuatro calderas de gasoil y una de gas por dos calderas de biomasa en diferentes edificios públicos de Bera a suscribir entre el Ayuntamiento de Bera y el Departamento de Educación del Gobierno de Navarra.

ERABAKI DUTE:

SE ACUERDA:

1) Lehen aipatu den inbertsioa egiteko Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuarekin sinatu behar den hitzarmena onestea.

1) Aprobar el convenio a firmar con el Departamento de Educación del Gobierno de Navarra para llevar a cabo la inversión antes descrita.

2) Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzio-

2) Señalar que, de conformidad con el artículo

namenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamenduaren 41.12. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, aipatu hitzarmena M^a Sol M. Taberna Iratzoki alkateak sinatuko duela adieraztea.

41.12 del Reglamento de Organización y Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, la Alcaldesa M^a Sol M. Taberna Iratzoki será quien llevará a cabo la firma de dicho convenio.

6.- NAFARROAKO INGURUMEN KUDEAKETA ENPRESA PUBLIKOKO LANGILEEI ETA INGURUMEN ZERBITZU PUBLIKOEN DEFENTSAN MOZIOA:

6.- MOCION EN APOYO A LOS TRABAJADORES DE GESTION AMBIENTAL DE NAVARRA Y POR EL MANTENIMIENTO DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS AMBIENTALES EN NAVARRA

ARRAZOIEN AZALPENA

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Pasa den ekainaren 7an Nafarroako Ingurumen Kudeaketa (GAN) enpresa publikoan 65 lagun (langileen %55a) kaleratzeko Lan Erregulazio Txostena martxan jarri zuten.

El pasado 7 de junio se presentó en la Empresa Pública Gestión Ambiental de Navarra (GAN) un Expediente de Regulación de Empleo (ERE) que tiene como objetivo el despido del 55% de su plantilla (65 trabajadores de toda Navarra), que entendemos brutal y desproporcionado.

Langile publikoak diren heinean, udalentsako proiektuen diseinuan, finantziario bideak bilatzean eta exekuzioan aritu dira azken urte hauetan, udalen lankidetzarekin batera. Lan hauekin, natur eremuen egoera hobetu eta natura lanak burutzen dituzten tokiko enpresa txikien ezarpenean lagundu da.

La actividad profesional de los trabajadores de y trabajadoras de GAN se ha centrado en los últimos años en el diseño, obtención de financiación y ejecución de proyectos, en colaboración con entidades locales. Con ello se ha avanzado sin duda en la conservación y mejora del medio natural y en el apoyo y consolidación de un tejido de pequeñas empresas del medio rural.

Langile publiko hauek egindako lan konprometituaren ondorioz, Europako finantziario iturriak (LIFE eta INTERREG programak) eta gizarte mailako diru laguntzak (Obra social La Caixa) berenganatzea lortu da. Finantziarioa ibai eta hezeguneen berreskurapenera, landaketetara, sastraken garbiketetara, abeltzaintza azpiegituretara, muladarretara, turismo azpiegituretara, e.a. zuzendu dira.

El trabajo comprometido de estos trabajadores públicos ha posibilitado la captación de financiación europea -a través de fondos LIFE e INTERREG- y de fondos de carácter social -Obra Social La Caixa- para la restauración de ríos y zonas húmedas, plantaciones, desbroces, creación de infraestructuras ganaderas, mularias, dotaciones turísticas y recreativas, etc.

Gainera, ziur gaude enplegu publiko hauen galerarekin gure udalak orain arte eskaintzen zituen oinarrizko ingurumen zerbitzuen desagertzea ekar dezakeela: udalen ondare naturalaren kontserbazioan eta babesean.

Hori guztiarengatik, honako hau onetsi dute:

1) Nafarroako Ingurumen Kudeaketako langileei gure elkartasuna adierazi langileen %55ari eragiten dion LATaren aurrean.

2) GANeko LATa bertan behera uztea.

3) GANeko langileak jorratzen dituzten Oinarrizko Ingurumen Zerbitzuen mantentzea gure udalen natur ondarearen babesa ziurtatzeko.

4) Eta akordio honen berri izan dezazuen, Nafarroako Parlamentuari, Landa Eremuko Garapen, Ingurumen eta Tokiko Administrazio Kontseilariari eta Nafarroako Ingurumen Kudeaketako enpresako gerenteari, CPENeko Zuzendari Nagusiari eta GANeko langileen batzordeari zuzentzen diogu.

7.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen ganean gelditu dira:

1) Bandoak: 22/2013tik 24/2013ra.

2) Ebazpenak: 2013ko ekainaren 10eko 121.

Además estamos convencidos que la desaparición de estos empleos públicos va a suponer también la desaparición de distintos servicios ambientales básicos que hasta ahora se venía ofertando en nuestro municipios desde el sector público, para la conservación y la mejora del medio ambiente y del patrimonio natural de nuestros municipios.

Por todo ello, se aprueba lo siguiente

1) Mostrar nuestro apoyo y solidaridad a los trabajadores y trabajadoras públicos de Gestión Ambiental de Navarra (GAN), en el ERE de regulación de empleo que afecta a más de la mitad de la actual plantilla de la empresa.

2) Solicitar la paralización inmediata del Expediente de Regulación de Empleo, que afecta a los trabajadores de GAN.

3) Exigir el mantenimiento de los servicios ambientales básicos que se vienen realizando hasta el momento por estos trabajadores por el sector público navarro para la conservación y mejora del medio ambiente y del patrimonio natural de nuestros municipios.

4) Y para que tengan conocimiento de este acuerdo, lo hacemos llegar al Parlamento de Navarra; el Consejero del departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra; la Gerencia de Gestión Ambiental de Navarra; el Director General de la Corporación Pública Empresarial de Navarra (CPEN) y el Comité de Empresa de GAN.

7.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

1) Bandos: del 22/2013 al 24/2013.

2) Resoluciones: De la resolución nº 121 de 10

ebazpenetik 2013ko uztailaren 15eko
145.era arte.

de junio de 2013 a la nº 145 de 15 de julio de
2013.

**8.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE
UDAL ORGANOEEN KONTROLA.**

8.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL
DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA COR-
PORACIÓN.

Ez dira burutu.

No se producen.

*Honen ondotik, Alkateak zera proposatu du:
----- eta ----- beratarrei, bigarren
urtez, irabazitako Euskal Herriko Arpana
Txapelketarengatik zoriontzea eta gainon-
tzeko zinegotzi guztiak ados agertu dira.*

*Seguidamente, la Alcaldesa propone felicitar a
las beratarras ----- y ----- por su
victoria en el Campeonato de Arpana de
Euskal Herria, por segunda vez, a lo que el
resto de concejales y concejales muestran su
conformidad.*

**Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat
eman du 20:10etan.**

No habiendo más asuntos, la Alcaldesa levan-
ta la sesión a las 20:10 horas.

O.E. ALKATEA/ V.B. LA ALCALDESA
M^a Sol M. Taberna Iratzoki

IDAZKARIA/ LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta